



Irailaren 28tik abenduaren 20ra jokatu da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Egitura eta final aldaketarekin dator txapelketa: bost saio jokatu dira lehenengo fasean, finalurrekoak bi bueltatara izango dira eta finala Casillan jokatu da.

Txapelketako talde antolatzaileak ia guztia prest dauka Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2025 hasteko. Irailaren 28an hasiko da eta, asteburuz asteburu, abenduaren 20raino helduko da, Bizkaian zehar bertsoa zabalduz. Aurtengoa egitura aldaketarekin dator, gainera: lehenengo fasean bost saio jokatu dira, finalurrekoak buelta bitara izango dira, eta, azkenik, finala jokatu da.

Lehenengo fasean 30 bertsolarik kantatuko dute, Udabarria Bertsotanetik sailkatutako 21 bertsolarik eta 2023an finalurrekoetan kantatu zuten beste

bederatzi bertsolarik. Finalurrekoetako lehenengo bueltara 11 bertsolari sailkatuko dira eta han izango dituzte zain finalurrekoetara zuzenean pasatu diren zazpi bertsolariak, 2023an finalista izan zirenak. 18 horietatik 12 sailkatuko dira finalurrekoetako bigarren bueltara. Eta bi bueltetako puntuazioak batuta erabakiko da zeintzuk izango diren finalean kantatuko duten bertsolariak.

Finala abenduaren 20an izango da, eta azken txapelketetan Bilbao Arenan izan bada ere, aurtengoa Bilboko Casillan egitea erabaki du Talde Antolatzaileak.

Sarrerak, salgai

Saioetako sarrerak erosteko, betiko moduan, www.bertsosarrerak.eus atarira jo dezakezue. Saioaren egunean sarrerarekin geratuko balitz, txarteldegia zabalduko litzateke. Lehenengo fasean 16:30etik aurrera zabalduko da; finalurrekoetan, 16:00etatik aurrera; eta finalean, ostera, 15:30etik aurrera.



Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren aurkezpena, Bilboko Foru liburutegian. //XDZ.



UNAX
AIZPURUA IBARGARAI

2025EKO ESKOLARTEKO
TXAPELDUNA

ARANTZA. 2025-VI-14

Doinua: *Maitasuna izan leike*

Familiari muxu bat
atzekoeri beste bi
zuen ondoan berriro
eroso bainaiz eseri
besarkada bat lagunei
ta udalekukoeri
momentuz Iparraldea
oso fuerte da ageri
gaur dedikazioetan
luzatu nahi dut gehiegi
beraz txapela eskeini
nahi nizueke zueri (bis)
hainbeste maite nauten ta
maitatzen ditudaneri.

10 urteko zikloari topa, ahaldunduago abiatzeko

Ahalduntze Bertso Eskolak 10 urte bete ditu. Egindako bidea ospatzeko Askizun elkartu dira 10 ikasturteotan Ahalduntzen aritu diren partaideak. Ziklo berriari, sortutako galderei erantzunez eta hari mutur berriei helduz ekingo diote.

Bertsozale Elkartek bost urtez antolatu zituen bertso munduko emakumeen topaketetatik sortu zen Ahalduntze Bertso Eskola. 2014ko emakumeen topaketa Artaunson egin zen eta emakume bertsolariak oholztan jarduteko zituzten zailtasunak bistaratu ziren, ideia ere piztuz: emakumeen bertso eskola bat sortzea, bertsoan trebatzeko gune propio bat. Halaxe sortu zuen Bertsozale Elkartek Ahalduntze Bertso Eskola 2015eko irailean, bat-batean trebatu nahi zuten emakume guztiei zabalik. 10 edizio hauetan 81 partaide elkartu dira bertan.

Konpromisoa, esperimentazioa eta aniztasuna izan ditu zimendu eta horien gainean eraiki da. Aurten 10 urte bete ditu Bertso Eskolak, eta hasierako helburuari tiraka egin du orain arteko bidea. Gaur gaurkoz baina, Bertso Eskolak bestelako testuinguru eta errealitate bati erantzun behar diolakoan, gogoetarako baliatu dute urteurrena.

Ahalduntze Eguna, Askizun

Orain arte izandakoaren eta izango denaren arteko geldialdia markatu du Ahalduntze Eguna. Askizun, Getarian, elkartu dira ekainaren 7an orain arte Ahalduntzenekin batera bidea egin duten bertsolariak, gai-jartzaileak eta antolatzaileak. Belaunaldi eta edizio ezberdinetako 40 kide inguru elkartu, eta egun Ahalduntze Bertso Eskolan biltzen diren antolatzaileak eta partaideak ikasturte berrirako eman nahi dioten forma ere partekatu dute. Atzera begirakoa nahigabea egiten da, baina oraingo honetan aurrera begira ere jarri dira. Orainetik etorkizuna marrazteko balio izan du, eta 2025-2026 ikasturterako eraberrituta dator.

Badira aldatuko ez diren kontuak: bertsolarientzako formazio gune bat izan da eta izaten jarraituko du, ardatza bertsoan egitea izango da; elkargunea izango da eta esperimentaziorako gunea ere bai, eta ez soilik bertsolarientzat, baita gai-jartzaileentzat ere. Probalekua izatea nahiko genuke. Hala, bestelako kultur-diziplinekin harremanak garatuko dira, gure eremua bertsoa dela ahaztu gabe, eta, ondorioz, hizpide hartuta. Feminismotik sortutako eta landutako gaiak ekarriko dituzte guztiek: gai-jartzaileak, sortzaileak, gonbidatzen ditugun aritu eta adituek... ikuspegi horretatik jantziko dute Ahalduntze.

Hariari segiz, eraberrituta dator Ahalduntze

Garai batean bezala, blokeka funtzionatuko du. Ikasturtero hiru bloke nagusi izango dira, bakoitza gai jakin batekoa. Horrez gain, ibiltaria izango da. Talde bakar bat osatuko da eta aldiro lekuz aldatuko da. Mapa hori izen-emateen arabera trazatuko da. Taldea trinkoa eta iraunkorra izango da helburua, eta taldekideei begira, subjektu parte hartzailearen inguruko gogoeta aspalditik zetorren, beste espazio feminista askotan bezala, eta horri erantzunez, emakumeentzat ez ezik, sexu-genero disidentziei zuzendutako gunea izango da aurrerantzean.

Subjektuaren aniztasunean jarri dute azpimarra. Horrez gain, hari muturren bat edo beste ere gelditu da josteko bidean, izen aldaketa posiblearena kasu. Hausnarketa bide bat zabaldu da, ziklo berrian ebatziko dena. Hori ere bada proiektuak bizi eta martxan jarraitzen duenaren eta aro berriaren erakusgarri.



40 lagun elkartu dira Askizun, Getarian, Ahalduntze egunean. //XDZ

Bertsolaritzaren dokumentazio bilketa sendotzeko aurrerapausoetan

Xenpelar Dokumentazio Zentroak dokumentazio bilketan sakontzeko aurrerapausoak eman ditu: Bertsozale Elkarteko egitasmoen bilketa prozesuak berrikusi dira eta tokian tokiko eragileekin harremanetan jarrita, eremu horretako jarduna aztertu eta hobekuntzak bideratu dira.

Bertsularien Lagunak Elkartek, Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartek elkarlanean bertso dokumentazioaren bilketaren sistematizaziorako proiektua bideratu dugu azken urte honetan zehar.

Hiru elkarteak bertsolaritzaren egungo jardunak sortzen duen dokumentazioa biltzeko sistema propioa indartzeko lanean aritu gara, lurraldearen garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala sustatzea duen Euroeskualdea erakundearen lankidetzarekin.

Bertso dokumentazioa biltzeak helburu desberdinak ditu. Alde batetik, bertsolaritzaren kultur ondarea antolatzeko eta zaintzeko; eta, bestetik, ezagutza horretan sakondu nahi duen orori zerbitzu antolatu bidez eskaintzeko. Era berean, taldean ondutako bertso sorkuntzaren bilduma kolektibo hau, bertsolaritzaren ikerketa, sustapen eta transmisiorako oinarritzko bilduma da.

Xenpelar Dokumentazio Zentroko ondare bilketarik handiena Bertsozale Elkartek egiten du bere ohiko egitasmoen bidez,

baina ezinbestekoa izan da norbanako eta bertsozaleek borondatez egiten duten lana ere, ondare hori aberasteko eta eskaintzeko. Hortaz, dokumentazio bilketan sakontzeko, Bertsozale Elkarteko egitasmoen bilketa prozesuak berrikusi dira eta, tokian tokiko eragileekin harremanetan jarrita, eremu horretako jarduna aztertu eta hobekuntzak bideratu dira.

Bide honetan, hainbat euskarritako dokumentazioa jasotzeko lagungarri diren baliabideak sortu ditugu: egitasmoaren helburua eta azalpenak biltzen dituen esku-orria, euskarriaren arabera dokumentazioa egiteko irizpideak, grabazioak eta argazkiak egiteko jarraibideak eta bertso saioetako informazioa jasotzeko fitxak, besteak beste.

Informazio hori guztia Bertsozale Elkarteko egitasmo bidez hedatuko da, baita **Xenpelar Dokumentazio Zentroko webgunean** jaso ere. Webgune horretan bertan eskuratu daiteke bilketari buruzko esku-orria, egitasmoari buruzko bestelako xehetasunekin batera.



Egitasmoaren helburua eta azalpenak biltzen dituen esku-orria. //XDZ



Puntua jarrita

BITTORI ELIZALDE SOTO

Oso galdera zaila egin didazuna, Egoitz, baina batak zein besteak ematen didaten zerbaitekin erantzuten dizut lehendabizi: gozamina.

Biak haur nintzenetik egin izan ditut: familia artean lehenengo, eta modu formalago batean gero. Bietan sentitzen dudana gozamina eta plazera nabarmenduko nituzke, egunerokotasun korapilatsutik askatzen naute eta ordu gutxi batzuetan bada ere, soilik hori dut inguruan, bizipoza sentitzeraino.

Dantzan gorputzaren bitartez komunikatzen naiz, jolasten dut, aske mugitzen naiz... Gainera, asteko dinamikan pisu handia izateak, bertako dantza kideak familikoak bihurtzea eragin du. Egun ditudan lagun handienetarikoa dantza taldekoak dira, eta ez dago maite duzuna maite duzunekin egitea baino ederragorik.

Bertsotan, berriz, errimatuz komunikatzen naiz, jolasten dut, neurrietan eta zurruntasunean aske sentitzen naiz... Askotan aipatu dudana bezala, aitaren aldeko familiarik heldu zait zaletasuna, eta beraz, nire nortasunaren oinarritako bat dela esan nuke. Era berean, jende zoragarria ezagutzeko aukera eman dit eta baita haur nintzeneko amets txiki batzuk betetzeko ere.

Ezingo nuke ni naizena bata zein bestea gabe imajinatu. Asteko ordu asko ematen ditut horietan eta horrela izaten jarraitzea nahiko nuke. Niretzako hauek dira bizitzak ematen dizkigun plazer txikiak, zoriontsu sentitzen laguntzen gaituztenak.

Zu ere milaka gauzetan dabilena zara, Ekhiñe. Zeintzuk dira zuretzat bizitzako plazerak eta zoriona artean espazio gehiago dago?

Koplak

Sailkatze fasea bukatuta, irailean aurkeztuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Maiatzean jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketarako sailkatze fasea. Antolatzaileen esanetan, saio politik izan ziren, bai ikusleen kopuru eta giro aldetik, baita bertsolarien mailagatik ere. Sei sailkatu dira udazkeneko txapelketara: bi saioetako irabazleak, Xabi Maia eta Endika Legarra, eta puntuazioz Kattin Madariaga, Amaia Elizagoien, Aitor Irastortza eta Jabi Lezaun. Irailean aurkeztuko dugu udazkenean jokatuko den Nafarroako Bertsolari Txapelketa.

Poto-Finixa



Oinak buruan eta ogia soberan!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Irakasleen lan-poltsa zabaldik dago

Hezkuntza arautuan zein bertso-eskoletan bertso irakasle lanetan aritzeko lan-poltsa zabalik dago. Euskal Herri osoan eskaintzen ditugu bertsolaritza eskolak, eta lurralde batean zein gehiagotan izena emateko aukera dago; baita, jardun iraunkorrean zein orduka lan egiteko ere. Une honetan 55 irakasletik gora ditugu lanean zazpi lurraldeetan. Informazio gehiago eta izena emateko aukera www.bertsozale.eus atarian duzue.



PUBLIZITATEA